



# Euskal Herriko Laborantza Ganbararen formakuntzen katalogoa

2022 uztaila ▷ abendua

Ikastaldiak jarraiki, etxaldean bere praktikak hobetetzeko  
eta gaitasunak zabaltzeko, laborari gisa

**Qualiopi**   
processus certifié

 **RÉPUBLIQUE FRANÇAISE**

La certification qualité a été délivrée au titre de la catégorie d'action suivante :  
ACTIONS DE FORMATION

Euskal Herriko Laborantza Ganbara – Zuentzat – 64 220 Ainiza Monjolose

Tel/ 05 59 37 18 82 | [www.ehlgbai.org](http://www.ehlgbai.org)

## ► SAR HITZA

2005eko urtarrilaren 15ean sortu zen Euskal Herriko Laborantza Ganbara (EHLG). 1901 legedian oinarritzen den laborantza-garapenerako elkartea da. Laborantza herrikoi eta iraunkorraren alde lan egiten du, laborantza eta laborarien zainketan eta tokiko garapenaren alde.

Bere proiektuaren baitan, EHLGk laborarieri zuzenduak diren formakuntzak proposatzen ditu. Horien xehetasunak 2022ko lehen sei hilekoko katalogo honetan aurkituko dituzu.

### INFORMAZIO PRAKTIKOAK

Formakuntzen agenda gure webgunean eskura daiteke : [www.ehlgbai.org](http://www.ehlgbai.org). Beharrez, dokumentua mailez edo postaz bidaltzen ahal dautzugu.

Baliteke finkatu datak, tenoreak eta lekuak aldatzen ahal direla, bai eta ere beste formakuntza batzuek proposatuak izatea : beraz ez ahantz erregulariki gure webguneko agenda begiratzea [www.ehlgbai.org](http://www.ehlgbai.org)

Izen emaita gutti gora behera formakuntza baino 15 egun lehenago idekia da.

#### Nola egin ?

Zure izena linean eman dezkezu, gure webgunean : [www.ehlgbai.org](http://www.ehlgbai.org)  
edo telefonoz : 05 59 37 18 82

#### Baliabide pedagogiko eta teknikoak :

Euskal Herriko Laborantza Ganbarako (EHLG) talde profesionalak hainbat ekintza martxan jarri ditu laborari, desmarta kolektibo eta elkargoen zerbitzuko. EHLGko formatzaileek proposatzen dituzten formakuntzak beren gaitasun tekniko eta pedagogikoetan oinarritzen dira, tokian tokiko esperientziak indarturik.

Gai zehatz batzuentzat, kanpoko mintzalariak jinarazten ahal ditugu. Horien goi mailako gaitasunak heien esperentzia eta formakuntzan oinarritzen dira.

Euskal Herriko Laborantza Ganbarako baliabide tekniko guztiak mobilizatuak izan daitezke formakuntza saioa baldintza hoberenetan iragaiteko.

#### Segipen pedagogikoaren eta ebaluazio modalitateak :

- Formakuntza bukaeran, formatzaileak taldeak lortu ezagutzak ebaluatuko ditu.
- Formakuntza bukaeran, parte hartzaile bakoitzak satisfamendu fitxa bat beteko du

#### Publikoa eta betebeharrak :

- Norentzat : orokorki Euskal Herriko laborarieri zuzendua
- Finantzamendua : VIVEA-k bere gain hartuko du urtesaria ordaindu duten laborarientzat. Besteentzat, zuen OPCO-ak bere gain hartzen ahal duenez ziurtatuko dugu. Ez bada hala, baliteke parte hartze ekonomiko bat galdegina izatea. Xehetasun gehiagorentzat gurekin harremanetan sar zaitez.
- Aitzinetik bete behar diren baldintzak : parte hartzeko ez da lehenago bete behar den baldintzarik formazioari doakionez. Aldiz, proposatu formakuntza batzuen kasuan lehenago bete behar diren baldintza batzuek galdeginak izanen dira (ezagutza tekniko edo estatusari lotuak)

#### Ahalmen urritasun egoeran diren pertsonendako

- Formakuntza lekura sartzeko : gure egoitza ahalmen urritasun egoeran diren pertsoneri egokitua da, gurekin harremanetan sar zaitez.
- Formakuntzan parte hartzeko : ahalmen urritasun egoeraren arabera, formakuntza egokitzen ahalko dugu. Informazio gehiagorentzat edo/eta zure beharren berri emaiteko, gurekin harremanetan sar zaitez

**Argitasun gehiagorentzat :** Mainer LARRIEU, 05 59 37 18 82

<b>Certiphytoa berritu</b> (« décideur en entreprise non soumise à agrément » kategoria)	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- 2022/09/29, osteguna, EHLG-n (Ainiza Monjolose), 9.30 – 17.30</li> <li>- 2022/10/20, osteguna, EHLG-n (Ainiza Monjolose), 9.30 – 17.30</li> <li>- 2022/12/01, osteguna, EHLG-n (Ainiza Monjolose), 9.30 – 17.30</li> </ul> <p>Beste sesio batzu proposatuko ditugu 2022ko azken 6 hilabeteetan.</p>	7 ordu, egun 1
<p>Norentzat / Aitzinetik bete behar diren baldintzak : laborarientzat, oraino balio duen banakako Certiphyto agiriaren titularrak direnak, produktu fitosanitarioak erabiltzen dituztenak eta Certiphytoa berritu nahi dutenak – onespelik gabeko enpresako erabakitzaileak.</p> <p>Berritzea berantenez baliozkotasun epea pasatu baino 3 hilabete lehenago egin behar da.</p>	
<p>Formatzailea : Emmanuelle Bonus (alor produkzio sistemetako animatzaile eta teknikaria, Certiphyto formatzailea, EHLGn 2012-az geroztik) edota Txomin Elozegi (alor produkzio sistemetako animatzaile eta teknikaria, Certiphyto formatzailea, EHLGn 2022ko apirilaz geroztik)</p>	
<p>Formakuntzaren helburua : Parte-hartzaileak produktu fitofarmazeutikoen erabiltzearekilaran lotura duten arauen, ingurumenaren eta osasunaren gaineko inpaktuen eta metodo alternatiboan inguruko ezagutzak eguneratu edo azkartuko ditu. Helburua da norbera bere produktu fitofarmazeutikoen ziurtagiria (Certiphyto) berritzeko gai izatea.</p>	
<p>Egitaraua / edukia :</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingurumen-araua eta segurtasuna (2 ordu)</li> <li>• Osasuna eta segurtasuna produktuak hedatzen dituztenentzat eta publikoari idekiak diren eremuentzat (2 ordu)</li> <li>• Produktu fitofarmazeutikoen erabilera ttipitu eta metodo alternatiboak ezagutu (3 ordu)</li> </ul>	

<b>Ardi esnedun hazkuntzaz formakuntza zikloa</b>	
<p><b>2022/10/26 eta 2022/11/02</b>, EHLG-n (Ainiza Monjolose)  <i>Beste bi egunen datak berantago komunikatuak izanen dira.</i></p>	28 ordu, 4 egunez, 2022ko urria eta 2023ko martxoa artean
<p>Formatzaileak : Marina Deysine (hazkuntza produkzio sistemetako animatzaile eta teknikaria, EHLGn 2018-az geroztik) eta H��l��ne Persillon (hazkuntza produkzio sistemetako animatzaile eta teknikaria, EHLGn 2022-az geroztik)</p>	
<p>Formakuntzaren helburua : Formakuntza eta gero, parte hartzailea ardi hazkuntza zikloan izaiten ahal dituen zailtasunak identifikatzeko gai izanen da bai eta ere horien gainditzeko metodo eta tresnen ezagutza ukanen du.</p>	
<p>Egitaraua / Edukia : Ardi esnedun hazkuntzan ari direneri (bereziki instalatu berrieri) zuzendutako formakuntza horretan, emaitza hobekuntza ukaiteko metodoak eta tresnak baita etxaldean hobekuntza konkretuak nola plantan ezarri aurkeztuak izanen zaizkie parte hartzaileeri. Artaldearen urteko zikloaren funtsezko faseetan oinarrituko da formakuntza hau (bazkatzea, erditzea, esnealdia eta arkaltzea).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ <b>1. saioa, 2022/02/16, asteazkena</b> : hazkuntza eramaiteko moldeak eta bazkatzea</li> <li>➤ <b>2. saioa, 2022/11/02, osteguna</b> : erditze garaiko puntu nagusiak</li> <li>➤ <b>3. saioa, 2023ko urtarrilan</b> : erditzeak eta esnealdia</li> <li>➤ <b>4. saioa 2023ko martxoan</b> : ardiak arditegitik ateratzea, pentzeetan ezartzea, arkaltzea prestatzea</li> </ul>	

## Pirenaika arrazako aratxe hazkuntza eta gizentze metodoak aratxekia balioztatzeko

2022/10/21, ostirala, gizentze tailerretan (*lekua finkatzekoa*),  
9.00 – 17.30

7 ordu, egun 1

Formatzailea : Hélène Persillon (hazkuntza produkzio sistemetako animatzaile eta teknikaria, Ipar Euskal Herriko Behi Pirenaika elkarteko animatzailea, EHLGn 2022ko ekainaz geroztik)

Mintzalaria : David Capdevielle (SECOPALM enpresako behi saileko teknikaria)

Formakuntzaren helburua : Formakuntza eta gero, parte hartzaileak Pirenaika arrazako aratxeen hazteko eta gizentzeko metodoak ezagutuko ditu haragi tailerreko produktuen kalitatea hobetzeko.

Egitaraua / edukia : Formakuntza hau Pirenaika arrazako aratxekiaren kalitatea hobetu nahi duten hazle edo hazlegaiari zuzendua da. Egunean zehar, 3 gizentze tailer desberdin bisitatuko dituzue eta ondoko gaiak landuko : aratxe saila, kalitatearen kontzeptua haragi-sailetan, karkasaren kalitatea (pizua, osaketa) eta aldaketak eragiten dituzten faktoreak, kabalaren bizia sortzetik hil arte (bazkatzea, alha, desparasitazioa, etab.), animalia baten gizentze egoera ebaluatu, memento onean komertzializatzeko.

## Certiphytoa lehen aldikotz pasatu (« décideur en entreprise non soumise à agrément » kategorian)

2022ko abenduaren 6 eta 14an, EHLG-n (Ainiza Monjolose)

14 ordu, 2 egunez

Norentzat / Aitzinetik bete behar diren baldintzak : produktu fitosanitarioak erabiltzen dituzten laborarientzat eta banakako Certiphyto agiria lehen aldikotz pasatu nahi dutenentzat – onespenez gabeko enpresako erabakitzaileak.

Formatzailea : Emmanuelle Bonus (alor produkzio sistemetako animatzaile eta teknikaria, Certiphyto formatzailea, EHLGn 2012-az geroztik)

Formakuntzaren helburua : Parte-hartzaileak produktu fitofarmazeutikoen erabiltzearekilaran lotura duten arauen, ingurumenaren eta osasunaren gaineko inpaktuen eta metodo alternatiboaren inguruko ezagutzak eguneratu edo azkartuko ditu. Helburua da norberak bere produktu fitofarmazeutikoen ziurtagiria (Certiphyto) eskuratzea.

Egitaraua / edukia :

- Ingurumen-araua eta segurtasuna (4 ordu)
- Osasuna eta segurtasuna produktuak hedatzen dituztenentzat eta publikoari idekiak diren eremuentzat (4 ordu)
- Produktu fitofarmazeutikoen erabilera ttipitu eta metodo alternatiboak ezagutu (5 ordu)

Parte hartzaileen ezagutzak formakuntzaren bukaeran egiaztatuko dira hautu anitzeko galdeketa baten bidez (oren 1eko iraupena, 30 galdera).

## Etxaldean biderkatu mikroorganismoen erabilpena ongarrien eta lurren funtzionamendua hobetzeko

2022/12/15 eta 16a, asteazken eta osteguna (1,5 egun) 2023an, egun bat formakuntza urtarrilan ( <i>lekua finkatzekoa</i> ) eta hitzordu indibiduala etxaldean nahi dutenentzat	17h30 ordu, 2 egun eta erdiko formakuntza
---	---

Formatzailea : Txomin Elozegi, agronomoa, alor produkzio sistemetako animatzaile eta teknikaria, EHLGn 2022ko apirilaz geroztik

Mintzalaria : Remi Thinard, laborantza eta agroekologiako formatzaile eta aholkularia (Symbiotik Agroécologie)

Helburu orokorra : Formakuntza eta gero, parte hartzaileak bere etxaldeko mikroorganismo onen biderkatzeko eta erabiltzeko gai izanen da hazkuntza bastimenduetako giroa eta ongarrien/pizen kalitatea hobetzeko.

Egitaraua / Edukia :

- Abenduan, egun bat eta erdi iraunen duen formakuntzan, puntu hauek barneratuko dituzue : mikroorganismoen inguruko teoria (jatorria, erabilpena), mikroorganismo biderketa (ariketa praktikoa etxalde batean), LIFO FER (*L*itière *F*Orestière *F*ERmentée = hartzitutako oihaneko orbela) eta EM-ak (*M*icroorganismes *E*fficaces), etxaldeetan erabili produktuen konparaketa (erabilgarritasuna, prezioa...).
- Urtarrileko formakuntza egunean, etxaldean biderkatu mikroorganismoen erabilpena (ongarrietan, pizan, barrukietan) aipatua izanen da eta hilabete bat lehenago prestatu mikroorganismoak kontrolatu, begiratu, usaindu eta partekatuko dituzue (denek etxean erabiltzeko gisan).
- Ondoko 2 hilabeteetan, nahi dutenentzat, formatzailea parte hartzaileen etxaldera joanen da, mikroorganismoen erabilpena segitzeko eta emaitzen ikusteko ongarri eta pentzeetan.



Euskal Herriko Laborantza Ganbarak, laborariak formatzen eta jarraitzen ditu azken 17 urte hauetan

Gure formakuntza eta egunaldi tekniko guziak linean dira : [www.ehlgbai.org](http://www.ehlgbai.org)

Gure berripaperari harpidetu

Gure aktualitate eta formakuntza eskaintza zure e-mezutegian zuzenki

Harpidetzen naiz **HEMEN**